

Nazioarteko arte galeriak errealitate birtualaren bidez lehorreratuko dira Donostian

- + **The Digital Room** da 2017ko edizioaren berritasun nagusia.
- + Nazioarteko galeriak bisitatu ahal izango dira Errealitate Birtualeko teknologien bidez.
- + Donostiartean azokak, kontzeptu berriarekin, Donostian gau-artean erreferentzia bihurtzea du helburu.




Heldu den uztailean artea izango da Donostian protagonista, Jazzaldiarekin batera hilaren 20tik 23ra bitartean izango baita. Donostiartean azokaren laugarren urte honetan, oraingoan nazioarteko artearen gau-azoka bilakaturik, ilunabarrak Jazzaldiarekin partekatuko ditu. Azoka kontzeptu berri batekin dator, artistak, erosleak, galeriak, bisitariak eta *art lovers*ak elkartzeko borondatez eta indar biziz.

Lau urteko lan jarraikiaren ondoren, Donostiartean azokak artea irudikatzen beste era bat aurkeztuko du, munduko edozein galeriatara jotzeko aukera aparta.

Erakustoki gisa Kursali eutsita, espazioa 9 gunetan banatuta egongo da, 3.500 m² orotara. Bisitariak **bertako zein nazioarteko galeriak** ikusi ahal izango dituzte, artistek **C/O**

Gunean partekaturiko sekzioak; **Emerging Talents** izar gazteentzat prestatuko gunea da eta **Bertako Artistak** hemengo ehun artistikoari eskainia. Joerarik berritzaileenak **Inter-sections** gunean kokatuko dira. **Artea Deskribatzen** atalean obren “dastaketa” gidatuak egingo dira, eta **Street Art for Kids** gunean txikiak graffiti handi bat egin ahal izango dute. Berritasun nagusia **Digital Room** izango da, denen artea denentzat eskainiko baitu.



Digital Room, errealitate birtualari irekitako leihoa, bisitariari norbere White Cube batera ihes egiten utziko diona, zentzumenak protagonista nagusi izango diren esperientzia bikain bat bizitzeko parada.

White Cube kubo formako artegune baten simulazioa da, Donostiara etortzerik izango ez duten galeriei emango zaien aukera bat. Baina azokan bertan direnek ere zabalik izango dute, bisitariari proiektu gehiago aurkezteko *backstage* birtual gisa.

Donostiartean artearen lehen gau-azoka da estatuan, bisitariari artea, artearen ohiko kontsumoa eta gozamina gerturatu nahi dizkien kontzeptu berritzailea, musikaz, gastronomiaz eta koktelgintzaz edertua.

